

KULTURA- OHITUREI BURUZKO panela

Datuen analisia

5
JASOALDIKO



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Aztergaia	4
3. Emaitzak	6
3.1 Aldaketa-ibilbideen deskribapena	6
Xedea	6
Zer neurtzen da?	6
Nola neurtzen da?	6
Emaitzak eta eztabaida	7
Ondorioa	13
3.2 Aldaketaren pertzepzio subjektiboa	15
Xedea	15
Zer neurtzen da?	15
Nola neurtzen da?	15
Emaitzak eta eztabaida	15
Ondorioa	19
3.3 Parte-hartze kulturalaren mailak izandako bilakaeraren baldintzatzaileak ..	20
Xedea	20
Zer neurtzen da?	20
Nola neurtzen da?	20
Emaitzak eta eztabaida	22
Ondorioa	26
4. Azken iruzkina	29
ERANSKINA	31
1. Eranskina:Taula osagarriak	31
2. Eranskina: Aldagaien kodetzea	32

Kulturaren Euskal Behatokiak, Ohiturei buruzko Panelaren bidez, herritarren kultura-ohituren berri jaso eta eremu horretan sakontzea du xede. Ikerketa hori egiteko, lagin-unitate beraren jarraipena egiten da denbora jakin batean, jarraipen horrek aukera ematen baitu inguruabarrak maila indibidualan behatzeko, zeinak aldaketa-patroien ezaugarriak zehazteko lagungarri baitira.

Lagina 204 pertonez osatuta dago, eta denek ala denek parte-hartze kulturalaren gutxieneko atalase bat gainditzen dute. Hura orekatzen duten 3 irizpidetatik abiatuz eraikitzen da, aldaera hauen arabera:

- ◆ Lurralde historikoak (Araba % 15,7; Gipuzkoa % 35,3; Bizkaia % 47,5; 3 pertsona EAetik kanpo daude gaur egun)
- ◆ Sexua (emakumeak % 50; gizonak % 50)
- ◆ Adina (% 56,9, 2000-1988 urte bitartean jaiotak; % 43,1, 1987-1976 urte bitartean).

5. jasoaldian, % 9,3ko ordezkapen-tasa egon da, eta irizpide orokorren arabera egin dira ordezkapenak (aurreko jasoaldian parte hartu ez zuten bi pertsona berreskuratu dira jasoaldi honetan). Landa-lana 2019ko uztailaren 8tik uztailaren 26ra egin zen.

Txostenaren muina hiru ataletan dago banatuta, eta alderdi hauek aztertzen dira horietan:

- 1.** Aldaketa-ibilbideak. Hautemandako aldaketa-ibilbideak deskribatzen dira, zenbait aldagairen araberrako parte-hartze mailen indizeak eraikiz. Horren ondorioz, igotzeko, mantentzeko edo jaisteko joerak sortzen dira, parte-hartze motaren arabera (hartzailea, sortzailea edo digitala).
- 2.** Aldaketaren pertzepzio subjektiboa. Norberak hautemandako bilakaeraren analisia, igotzearen, mantentzearen eta jaistearen arabera. Aurreko ataleko emaitza objektiboekin alderatzen da, eta inkestak bere emandako arrazoiak aztertzen dira.
- 3.** Parte-hartze kulturalaren mailak izandako bilakaeraren baldintzatzaileak. Azalpen-faktoreetan izandako aldaketek parte-hartze kulturalarekin lotutako joera gorakorren edo beherakorren gainean duten inpaktuaren analisia.

Emaitzak eskema modura aurkezten dira, eta, kasu bakoitzean, asmoak, neurgaiak, neurtzeko modua, emaitzak eta interpretazio-iruzkin bat adierazi dira. 2. Eranskinean aldagaien eta beren kodetzearen xehetasunak aurki daitezke.

Tradizionalki, kultura-ohiturekin lotutako ikerketek «kontsumo kulturalaren» ikuspegitik ikertu izan dute parte-hartzea. Oro har, kontsumo kulturalaren ideia erakusketa-guneetara joatearekin eta liburuak eta prentsa irakurtzeko ohituren maiztasunarekin lotzen da.

Horrenbestez, norbanakoak duen parte-hartze kulturalaren ikuspegi pasibo bat jasotzen da. Norbanakoa ikusle bat da, kulturaren hartzaile bat. Publiko kulturalaren gaineko ikusmolde hori, lehenik eta behin, kulturak arte eta ondare modura duen ikuskera hertsia ondo da. Horrek mugatu egiten ditu azterketan jasotzen diren jarduerak: antzerkia, musika, museoak, gune kulturalak, zinema eta beste hainbat. Bigarrenik, kulturaren demokratizazioaren paradigmatikoa oinarrituta da; izan ere, jarduera horietarako sarbide-aukerak parekatzeko asmoz, posizio pasibora behartzen du norbanakoa.

Kultura-arloko politikari, haren helburuari eta haren paradigmatikoa buruzko bi ikuspegi horien aurrean, ikuspegi osagarriak garatu izan dira. Alde batetik, kultura arte eta ondaretzat hartzen duen ikuspegi hertsia, industria kulturalak ez ezik, sormenezkoak ere gaineratu zaizkio. Gainera, aldaketa digitalaren eraginez bestelako dimentsio bat txertatu da ezinbestean.

Beste alde batetik, kultura-sarbidearen demokratizazioak aurrera egin ahala eta sarbide-aukera formalean berdintasuneko banaketa garatu ahala, argi geratu da ikuspegi hori, ezinbestekoa bada ere, ez dela nahikoa kulturarako sarbidea eraginkorra izan dadin, ikuspegi horretara mugatuz gero mantendu egiten baitira kultura-baliabideetarako sarbiderako gizarte-desberdintasunak. Horren aurrean, paradigma osagarri bat garatu da pixkanaka: demokrazia kulturalarena. Paradigma horren arabera, norbanakoak ez dira ikusle edo kontsumitzaile soilak; eragile aktiboak, sortzaileak eta kulturaren eroaleak ere badira. Paradigma horri helduta, bada, ezinbestekoa dugu berriro hausnartzea eskaini beharreko galderen eta erantzunen gainean. Kontua ez da soilik kontsumo kulturalerako aukerak guztion eskura ipintzea, baizik eta kultura-trebetasunak garatzeko aukerak eta tresnak ematea.

Horrek dimentsio anitzeko ikuskera batean kokatzen du parte-hartzea:

1. Lehenik, kontzepziorik klasikoenarekin bat eginez, parte-hartzea pasiboa edo hartzailea izan daiteke, eta, ikuspuntu horretan, eragilea kulturaren ikusle (hartzaile) da.
2. Bigarrenik, badira kulturaren parte hartzeko modu aktibo edo sormenezkoak. Jarduera horietan, eragileak protagonismoa hartu eta bere eragiletasuna garatzen du. Praktika artistiko amateurren eta asoziazionismo kulturala dira parte hartzeko modu horren adibide.
3. Azkenik, aldaketa digitalak dimentsio berri bat ekarri du, baita parte-hartze sortzailea edo parte-hartze hartzailea ahalbidetu ere, betiere berezko aukerak eta mugak dituen bitarteko desberdin baten bidez. Horrela, parte-hartze digitalaz ere hitz egiten da.

Hala, Panelaren kasurako, parte hartzeko modu bakoitzak zer eragin duen erakusteko inkestaren itemetatik abiatuz (1. eranskina):

- ◆ Parte-hartze hartzaileak kontsumo kultural pasiboari egiten dio erreferentzia, hainbat jarduera erlatiboren bertaratze- eta maiztasun-maila oinarritzat hartuta. Horrela, horietako bakoitzaren intentsitatea neurtu eta bereizten da. Zehazki: zenbat liburu irakurtzen den, eta zenbatetan joaten den zinema, kontzertu, ikuskizun eta erakusketetara.
- ◆ Parte-hartze sortzailean, berriz, praktika artistiko amateurak egiten ote diren aztertzen da (guztira 13 jarduera, hala nola margotzea, idaztea, bideoak egitea, eta abar). Horrela, kasu horretan, aurrekoan ez bezala, ez da bereizketarik egiten, jarduera bakoitza gauzatzeko intentsitate-mailaren arabera.
- ◆ Azkenik, parte-hartze digitalean, alderdi hartzailea baino ez da aintzakotzat hartzen. Hau da, jardueren kontsumoa edo gauzatzeko digitala hartzen da kontuan (bitarteko digitalak hautatzea irakurtzeko, zinema eta erakusketak ikusteko, eta abar). Irakurketa errazteko, emaitzei buruzko atalean «parte-hartze digitala» terminoa erabili arren, «parte-hartze digital hartzaileaz» jardungo gara.

Panelaren ekarpen nagusia da gaitasuna duela pertsonen denboran zehar **parte-hartze kulturalaren mailan dituzten aldaketak** azaltzeko. Aurretik aipatu bezala, 3 parte-hartze modu aztertu dira horretarako: hartzailea, sortzailea eta digitala. Ikerketa honen helburua da ulertzea zer faktore erlazionatzen den parte-hartze mailen aldaketarekin eta nola erlazionatzen den.

3.1 Aldaketa-ibilbideen deskribapena

Xedea

- ♦ Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbideak deskribatzea

Zer neurtzen da?

Aldaketa-ibilbideen gaineko behaketa bat da, azken jasoaldietako parte-hartze mailak alderatuz egina.

Aurreko jasoaldietan ez bezala, oraingoan ez dira 3 aldaketa-ibilbide neurtu (igoera, mantentzea edo jaitsiera), 5 baizik: igoera handia, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera handia. Hori 3 parte-hartze moduetako bakoitzarekin egin da.

Jasoaldiak binaka hartu dira, eta horren arabera erakusten da parte-hartze modu bakoitzak (hartzailea, sortzailea eta digitala) izan duen bilakaera. Hau da, txosten honetan –aurrekoan ez bezala–, 2. jasoaldiko datuen artean sartu dira soilik 1. jasoaldian ere parte hartu zuten pertsonenak, 3. jasoaldiko datuen artean 2.ean ere parte hartu zutenenak, eta abar. Kontuan hartu beharra dago jasoaldi guztietan ordezkapen-tasa bat dagoela: batzuek ikerketa uzten dute, eta beste batzuk sartu egiten dira. Horrela, informazio-galera optimizatzea lortzen da; bestela, jasoaldi guzti-guztietan parte hartu duten pertsonen datuak bakarrik hartuko balira, informazio-galera larria izango litzateke.

Nola neurtzen da?

Aztergai den aldagaia 3 urratsetan eraikitzen da:

1. Lehenik, parte-hartze modu bakoitzerako eskala bat eratzen da, 0-1 bitartean aldatzen dena: 0 parte-hartze nuluren maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenbakien artean kokatzen dira, eskalak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera (2. eranskinean zehaztua).
2. Bigarrenik, jasoaldien arteko konparazioa egiteko, norbanakoak eskala bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) eskuratutako puntuazioari aurreko jasoaldian eskuratutako puntuazioa kentzen zaio.
3. Hirugarren urratsean, estatistikaren ikuspuntua jorratzen da, eta aldagai kuantitatibo jarraitu bat jasotzen. Aldagai hori 5 kategoria hauetan birkodetzen da, eta, hartara, kategoriaren arabera


aldagai kualitatibo bat sortzen da: igoera handia, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera handia. Jasoaldien arteko aldea oso txikia bada, mantentze-kasutzat hartzen da¹.

Aurreko jasoaldietan, birkodetze horrek igoera, mantentzea eta jaitsiera bakarrik islatzen zituen. Orain, ibilbideak hobeto xehatzen dira, eta, beraz, behaketa hobea da. Aurreko orrialdeko oin-oharreen zehaztutakoaren ildotik, mantentzearen definizioa ere aldatu egin da; orain baztertzaleagoa da, eta, beraz, lehen mantentzetzat hartzen ziren kasu batzuk orain igoerak edo jaitsierak dira.

Emaitzak eta eztabaida

Aurreko jasoaldietako emaitzekin alderatuta, jaitsiera txiki bat gertatu da oro har (1. grafikoa), baina joera globala mantentzekoa da.


1. grafikoa. 2., 3., 4. eta 5. jasoaldietako parte-hartze mailen bilakaera



Parte-hartze moduen pisutik guztizkoa bereizteak parte-hartze kulturala hobeto ezaugarritzen laguntzen du.

¹ Alde hori txikia den edo ez erabakitzeko irizpidea honela kalkulatu da: Oren inguruko dispertsio tipikoaren balio-urkila zati 2 eginez. Aurreko jasoaldietan, irizpidea Oren inguruko dispertsio tipikoa zen, besterik gabe, biz zaitu gabe. Demagun dispertsio tipikoa 0,1 dela; bada, orain, mantentzea definitzen duen urkila $\pm 0,05$ da.

2. grafikoa. Parte-hartze kulturalaren modu bakoitzaren banaketa jasoaldiz jasoaldi (%)



Parte-hartze moduen pisua konstante samar mantendu da azken jasoalditik hona: parte-hartze digitalak du pisurik handiena globalean. Izan ere, neurri handi batean, bitarteko horren bidez kontsumitzen da kultura. Beste multzo handia parte-hartze hartzaileari dagokio (kontsumo tradizionala edo “analogikoko” jarduerak, lehen emandako definizioaren arabera); parte-hartze sortzaileak (praktika artistiko amateurak), berriz, guztizkoaren hamarrena egiten du.

Hain zuzen ere, parte-hartze sortzaileari dagokionez, ohiko literaturak dio praktika artistiko amateurak eta parte-hartze hartzaile maila handiek erlazioa dutela. Bada, datuek aukera ematen dute bi parte-hartze modu horiek erlazionatzeko. 1. taulan ikus dezakegu nola praktika artistiko amateurak egiten dituzten pertsonak parte-hartze hartzaile maila handiagoa duten, batez beste; parte-hartze digitalean, ordea, ez dago alderik.

1. taula. Parte-hartze hartzailearen eta digitalaren mailak, parte-hartze sortzailearen arabera.

	Parte-hartze hartzailearen maila	Parte-hartze digitalaren maila
Ez du praktika artistiko amateurrik egiten	0,24	0,32
Praktika artistiko amateur bat egiten du, gutxienez	0,31	0,32
Batezbesteko globala	0,27	0,32


Galdera hori luzetara begiratu gero, ikusten da 4. jasoaldian praktika amateurren bat egiten zuten pertsonak bilakaera positiboa izan dutela parte-hartze hartzaileari dagokionez (2. taula); osteraz, ez bazuten halakorik egiten, bilakaera negatiboa izan da (oraingoan ere, ez da gauza bera gertatzen parte-hartze digitalari dagokionez).

2. taula. Parte-hartze hartzailearen eta digitalaren bilakaera 4. jasoalditik 5.era, 4. jasoaldiko abiapuntuko parte-hartze sortzailearen arabera.

	Parte-hartze hartzailearen bilakaera	Parte-hartze digitalaren bilakaera
Ez zuen praktika artistiko amateurrik egiten	-0,015	-0,01
Praktika artistiko amateur bat egiten zuen, gutxienez	0,014	-0,014
Batezbesteko globala	0,003	-0,01

Parte-hartze hartzailea

3. grafikoa. Parte-hartze hartzailearen aldaketa-ibilbideak jasoaldi batetik bestera



Oro har, jasoaldi batetik bestera mantendu egiten da parte-hartze hartzailearen maila (kasuen % 40,1). Aldaketa-ibilbideetan, berriz, jaitsiera eta igoera handi asko daude. Guztira hartuta, igoerak apur bat gehiago dira jaitsierak baino. Igoera gehienak ertainak dira, ez handiak; jaitsieren kasuan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da pixka bat.

Bost kategoriak bereizita hartuz gero, argi geratzen da jaitsiera handienak batezbestekotik nabarmen gora parte hartzen dutenen artean gertatzen direla, eta igoera handienak, berriz, batezbestekotik nabarmen behera parte hartzen dutenen artean (1. eranskineko 1. taula). Aurreko jasoaldian aldaketa ertainaren ibilbidea izan dutenen parte-hartze maila apur bat ezberdina da, batezbestekoarekin eta mantentze-ibilbidea izan dutenekin alderatzen badugu. Beraz, parte-hartze hartzailean gorabehera oso txiki ugari egon dira (kasuen % 70, gutxi gorabehera), eta aldaketa handi batzuk ere bai, bat-batekoagoak, kasuen % 30 inguru egiten dutenak.

Interesgarria da azpimarratzea parte-hartze hartzailearen eskala osatzen duten praktiken aldakuntza, zeina baliagarria baita joeren zergatiak identifikatu ahal izateko eta aurreko jasoaldietan behatu zena berresten den ala ez egiaztatzeko.

3. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerarik ohikoenak, jasoaldiaren arabera (ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)


	2. jasoaldia	3. jasoaldia	4. jasoaldia	5. jasoaldia
Kontzertuak	75,5	80,3	74,7	74,3
Liburuak	78,3	76,2	79,9	79,2
Zinema	79,9	72	70,7	68,3
Ikuskizunak	59,8	62,2	59,5	61,2
Erakusketak	56	58	56,7	57,4
Liburutegiak	39,9	52,6	56,7	50,6

Kulturalki aktiboak diren pertsonen artean, praktika zabalduenak irakurtzea eta kontzertuetara joatea dira. Batez ere irakurtzea, datu hori gutxiago aldatu baita. Bestalde, zinemara joatea da praktika ohikoenen artean hirugarrena, baina pisua galtzen jarraitzen du.

Ikuskizun eta erakusketetara joatea gora eta behera mugitzen da, modu egonkorrean neurri handi batean. Liburutegietara joateari dagokionez, 4. jasoaldian datua igo egin zen, eta orain pixka bat jaitsi da.

Parte-hartze sortzailea

4. grafikoa. Parte-hartze sortzailearen aldaketa-ibilbideak jasoaldi batetik bestera



Aurreko jasoaldiarekin alderatuta, igoera handiagoa da jaitsiera baino; nolahi ere, mantentze-kausak ere igo egin dira. Alegia, are gehiago indartu dira parte-hartze mota horren mantentzeko joera eta izaera egonkorra. Parte-hartze sortzailea ez dago hain zabaldua (praktikatzen duten pertsona kopuruaz ari gara), baina intentsitate altukoa da (praktikatzen duten gutxi horiek oso erregularrak dira).

Hain zuzen ere, mantentzeko joerak horrenbeste pisu du, pertsona askok praktika artistiko amateurrik egin gabe jarraitzen dutelako (1. eranskineko 2. taula). Gainera, oro har begiratuta, jarduera bakar bat egiten duten pertsona kopurua handitu egin da, eta bi edo gehiago egiten dituztenak, berriz, txikituz; halako jarduerarik egiten ez duten pertsonen multzoa ia-ia ez da aldatu.

Jarraian datorren taulan ikus daiteke zeintzuk diren praktika ohikoenak jasoaldi ezberdinetan:

4. taula. Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak (ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)

	2. jasoaldia	3. jasoaldia	4. jasoaldia	5. jasoaldia
Musika-tresna bat jotzea	17,5	14	13,2	12,6
Idaztea	14,1	10,9	12,6	15,3
Dantza eta balleta	10,3	7,3	7,5	9,3
Argazkiak egitea (lantegiak, ikastaroak)	ND ²	7,3	11,5	7,7
Margotzea edo marraztea	16,3	6,2	9,2	10,9


Jasoaldi honetan, idaztea beste praktika guztien gaineratik jarri da; haren atzetik, musika-tresna bat jotzea dago. Aurreko jasoaldietan, lehenengo lekuan agertzen zen musika-praktika, baina oraingoa bigarrenera jaitsi da.

Dantza-praktikek gora egin dute berriro, baita margotzeak eta marrazketak ere. Aurreko jasoaldian dezente igo zen argazkigintzaren praktika, baina orain behera egin du, 3. jasoaldiko ehuneko berdintsua izan arte.

Idaztearen datuak alde batera utzita, parte-hartze sortzailearen emaitzarik onenak 2. jasoaldikoak izan ziren.

Parte-hartze aktiboari dagokionez, aintzat hartu behar da elkarteetan egiten den parte-hartzea ere. Dena den, kasu honetan ez dago eraikitako eskalan jasota, izaera ezberdina duelako (eskalaren asmoa da praktika artistiko amateurren gaineko informazioa laburtzea).

5. grafikoa. Elkarte batean edo gehiagotan izandako parte-hartzearen bilakaera (%)




Grafikoan agertzen denez, parte-hartzea gorabeheratsua da: lagingaren % 14tik % 18ra bitartean mugitzen da.

² Datu hau ez da kontuan hartzen ohiz kanpoko balioa hartzen duelako eta interpretazioa zeharka ebakitzen du.

Parte-hartze digitala

6. grafikoa. Parte-hartze digitalaren aldaketa-ibilbideak jasoaldi batetik bestera



Azkenik, parte-hartze digitalaren 5 kategoriak aztertzen baditugu, gorabehera ertain asko ikusiko ditugu.

Parte-hartze hartzailearekin gertatzen zen bezala, jaitsierak parte-hartze maila oso altuko pertsonetan gertatu dira (1. eranskineko 3. taula). Aitzitik, igoerak batez besteko parte-hartzetik behera zeuden pertsonetan gertatu dira.

Eskalaren jardura espezifikoek begiratu gero, ohartzen gara praktika guztien intzidentzia nagusiki mantendu egin dela eta aldaketa txiki bakarra jasoaldi batetik bestera antzematen dela.

5. taula. Parte-hartze digitaleko jarduerarik ohikoenak (ehuneko horrek adierazten du jardura hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)

	2. jasoaldia	3. jasoaldia	4. jasoaldia	5. jasoaldia
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	95,1	92,3	92,5	91,2
Musika entzun edo deskargatzea	62,5	69,4	62,1	62,2
Liburuak irakurri edo deskargatzea	39,1	40,4	38,5	39,2
Liburutegian sartzea	22,5	23,3	25,9	25
Kontzertuak ikustea	14,8	16,7	22,5	21,1
Ikuskizunak ikustea	8,7	13,5	12,6	11,5
Erakusketak ikustea	3,3	3,6	2,9	2,7

Ikus-entzunezkoen kontsumoa da praktikarik zabalduena: lagina osatzen duten 10 lagunetik 9k ikusi ditu filmak, telesailak edo bideoak Internet bidez azken 6 hilabeteetan. Alde dezenterekin, 10etik 6k musika entzun edo deskargatu du, eta 10tik 4k gauza bera egin du liburuekin.

Askoz ere gutxiago dira, baina egon badaude, liburutegietara irispide digitala izan dutenak eta kontzertuak online ikusi dituztenak (% 20tik % 25era bitartean). % 11,5ek ikuskizunak ikusi ditu, eta, azkeneko lekuan, laginaren % 2,7k bakarrik bisitatu ditu erakusketak online.

Ondorioa

Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbideak analizatzeko adierazleen eraikuntza berritzearen alde egin da jasoaldi honetan. Hartara, 3 kategoriako eredua alde batera utzi (igoera, mantentzea eta jaitsiera), eta 5 kategoriako eredua erabili da, zeinean igoera/jaitsiera handiak eta ertainak bereizi baitira eta mantentzea modu baztertzaleago batean definitu baita.

Horri esker, lehengo kategorizazioa erabiliz ezkutuan geratzen zen informazioa azalarazi da, eta, beraz, aldaketa hobeto behatu ahal izan da. Zehazki, egiaztatu da lehen mantentze-etiketaren azpian ezkutuan geratzen ziren aldaketa asko eta asko aldaketa txikiak edo ertainak direla benetan.

Hala ere, jasoaldi honek balio izan du lagina osatzen duten pertsona tipoen kontsumo kulturalaren ibilbideei buruz lehendik egindako behaketak indartzeko edo haietan sakontzeko (gogoan izan behar da kontsumo kulturalaren gutxieneko atalase batera heltzeagatik hautatu direla pertsona horiek). Labur esanda, hauek dira:

- ◆ **Gorabehera arinak eta mantentzeko joera:** aldaketa esanguratsuak edo handiak gutxiago dira. Parte-hartze kulturalaren ezaugarrietako bat da batezbestekotik gora eta behera mugitzen dela, batzuetan neurrizko aldaketekin. Beste batzuetan, berriz, igoerak edo jaitsierak nabarmenagoak dira, ohi baino parte-hartze handiagoa edo txikiagoa izateagatik muturretako batean dauden pertsonen eraginda.
- ◆ **Ingurune digitalaren garrantzia eta izaera:** parte-hartze kultural hartzailearen zati handi bat ingurune digitalean gertatzen da, eta ikus-entzunezkoekin, irakurketarekin eta musikarekin zerikusia duten jardueri lotua dago nagusiki. Horrek erakusten du zenbait sektorek ingurune digitalerako trantsizioa egin dutela. Izan ere, askorentzat horixe da ingurune aproposena aipatutako jarduera hartzaileetan parte hartzeko –eduki mota edo esperientzia mota aintzat hartuta, erraz egokitzen baitira ingurune digitalera–.

Parte-hartze digitala aztertzeke garaian, ezaugarri funtsezkoa izaera da, eta ez kopurua.

- ◆ **Parte-hartze sortzailearen ibilbideen sendotasuna:** mantentzeko joera handiagoa da parte-hartze sortzailean. Izan ere, praktika artistiko amateurren eskakizun-maila handia dakar berekin, eta horrek konpromisoa eskatzen die kategoriatan, bai praktikatzaileei, bai ez-praktikatzaileei. Hau da, praktikarik egiten ez duten pertsonen bolumena mantendu egiten da hein handi batean, baina praktikak egiten dituzten pertsonen bolumena aldatzen doa, egiten duten jarduera kopuruaren arabera.

Horren harira, pentsatzekoa da sarrera-oztopo bat dagoela eta hura igarotzea lortzen duten pertsonak praktika amateurretan ohikoak bihurtzen direla. Aurreko jasoaldian gogoeta egin zen parte-hartze sortzaileari buruz, eta pentsatu zen, ziurrenik, lotura handia zuela osagai aktibo eta espresiboarekin, eta ez horrenbeste jarduera espezifikoarekin.

- ◆ **Parte-hartze hartzailearen omniborismoa:** ikusi da, adibidez, aztertutako praktika guztietan, inkestatuen % 50ak baino gehiagok jarduera jakin bat egin duela gutxienez behin azken sei hilabeteetan, eta horrek berretsi egiten du lehenengo jasoaldian omniborismo kulturalari buruz adierazitako ideia (kontsumoaren aniztasuna). Omniborismo-maila handia dago lagina osatzen duten pertsonen artean (noizean behingo publikoaren profila dute, gutxienez).

Kopurua eta aniztasuna erlazionatuta daude, beraz: kopuruak gora egiteko modu bat da aniztasunak gora egitea, eta kopuru monotematikoak eremu berrien esplorazioa eragin dezake eta, ondorioz, aniztasuna bultzatu.

- ◆ **Parte-hartze moduak desberdintzeko beharra:** bilakaera-datuek adierazten dute parte-hartze modu bakoitzak izaera bat duela, bai eta ibilbide ezberdinak ere (batez ere, parte-hartze hartzaileak eta sortzaileak).
- ◆ **Parte-hartze sortzailea parte-hartze hartzailearen faktore gisa:** praktika artistiko amateurra jarduera hartzaileen bilakaera positiboarekin eta parte-hartze maila handiagoarekin erlazionatzen da. Hortaz, kulturarekiko motibazio gehigarria eta zaletasun handiagoa erakusten dituen faktorea da; profil osoagoa dakar berekin, aldi berean praktikatzaile eta kontsumitzaile den pertsonarena.

Jarraian datozen atalek behaketa horietan sakontzen lagunduko dute. Horretarako, batez ere, hauek aztertuko dira: elkarrizketatutako pertsonen parte-hartze mailen aldaketak azaltzeko eman dituzten arrazoi subjektiboak (3.2 atala) eta aldaketa-ibilbideak ikuspuntu objektibo batetik azaltzen dituzten faktoreak (3.3 atala).

3.2 Aldaketaren pertzepzio subjektiboa

Xedea

- ◆ Aldaketaren pertzepzio subjektiboa aztertzea.
- ◆ Aldaketaren arrazoi subjektiboak aztertzea.
- ◆ Emaidza subjektiboak eta emaitza objektiboak erkatzea.

Zer neurtzen da?

Azaldutako xedeetarako, ezinbestekoa da neurri hauek kontuan hartzea:

- ◆ **Ibilbide subjektiboa:** norbanako bakoitzak bere aldaketa-ibilbidearen gainean duen pertzepzioa —hots, igo, mantendu edo jaitsi egin den—. Modu horretan, aldaketaren inguruko pertzepzio orokor bat neurtzen da, parte-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren artean bereizketarik egin gabe. Pertzepzio subjektibo bat da, norbanako bakoitzak hautematen duena.
- ◆ **Arrazoi subjektiboak:** parte-hartze maila orokorra igo, mantendu edo jaitsi izana justifikatzeko norbanakoek emandako arrazoiak.
- ◆ **Ibilbide objektiboa:** gainera, parte-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren ibilbideak deskribatzeko aurrez erabilitako neurriak berriro aztertzen dira, pertzepzio subjektiboarekin erkatze aldera. Aurreko atalean «ibilbideak» aipatu direnean ez da erabili «objektiboak» etiketa (ibilbideok datu-konbinazioaren eta kalkuluaren bitartez definitzen direlako, ez norberaren pertzepzio zuzenaren bitartez), baina, kasu honetan, erantsi egin da etiketa, eta, horri esker, bi ikuskerak bereiz daitezke.

Nola neurtzen da?

Ibilbide objektiboa aurreko atalean bezalaxe neurtzen da (indizeak kalkulatu, jasoaldien arteko aldeak ikusi eta igoera, mantentzea eta jaitsiera kategorietan birkodetzea egiteko prozesuaren ondorioz).


Ibilbide subjektiboa aldagai jakin bakarra erabiliz neurtzen da, zeinaren arabera inkestari erantzuten ziotenek jasoaldien artean zuten parte-hartze mailaren bilakaera balioesten baitzuten. Hala, beren ustez, parte-hartze maila igo, jaitsi edo mantendu egin ote zuten adierazten zuten.

Arrazoi subjektiboak arrazoi-zerrenda batetik ateratako bi galderarekin dute zerikusia. Lehenengoan, beren ustez, eragina duten arrazoi guztiak hautatzen dituzte —bat baino gehiago hauta dezakete—. Bigarrengoan, arrazoi nagusi irizten diotena aukeratzen dute.

Emaitzak eta eztabaida

Inkestatuek aldaketari buruz egiten duten balorazio subjektiboaren datuak bat datoz neurri handi batean parte-hartze hartzailearen bilakaera-datuekin, zeinen abiapuntua norberak hautemandako mantentzeen kopurua baita.

7. grafikoa. 4. eta 5. jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide subjektiboak (norberak hautemanak). Laburpena (%)



Oharra: bi jasoaldietan parte hartu duten norbanakoak hartuta egin dira kalkuluak.


Aldaketaren balorazioa bat dator, nahiko estu, aldaketaren ikuskera malguenarekin, zeinean aldaketa ertaina eta handia txertatzen baitira.

Aurreko jasoaldietan egin zen interpretazioa berresten du horrek; hau da, jendearen iritziz, parte-hartze kulturalak jarduera kultural hartzaileetan parte hartzea esan nahi du (6. taulan eta 8. grafikoa ikus daiteke datu objektiboak bat datozela balorazio subjektiboarekin). Horrek zeharka aipatzen du gizarteak zer pertzepzio duen kulturari buruz: zer den eta zer ez den kultura. Beraz, jasoaldien arteko balorazio subjektiboari emandako erantzunek honelakoak baztertzen dituzte, besteak beste: telesailak eta filmak ikustea, Internet bidez irakurtzea edo musika entzutea (parte-hartze digitala) edo musika-tresnak jotzea edo margotzea (parte-hartze sortzailea).

6. taula. Aldaketa-ibilbide objektiboa, 5. jasoaldiko aldaketa-ibilbide subjektiboarekin erkatuta, parte-hartze kulturalari dagokionez (moduen arabera)

		Aldaketa-ibilbide subjektiboa		
		Igo egin da	Mantendu egin da	Jaitsi egin da
Aldaketa-ibilbide objektiboa	Parte-hartze hartzailean ikusitako aldea	0,0313	0,0024	-0,0289
	Parte-hartze sortzailean ikusitako aldea	0,0076	-0,0075	-0,022
	Parte-hartze digitailean ikusitako aldea	-0,0243	-0,0086	0,0044

8. grafikoa. Aldaketa-ibilbide objektiboa, jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide subjektiboarekin erkatuta, parte-hartze kulturalari dagokionez (moduen arabera)



Elkarrizketatuek beren ibilbidea azaltzeko erabiltzen dituzten arrazoiak direla eta, kuantifikazio eta konparazio hau lortu da aurreko jasoaldiarekin alderatuta (ehunekoen batura 100 baino handiagoa da, norbanako bakoitzak arrazoi bat baino gehiago hauta dezakeelako):

7. taula. Parte-hartze kulturalaren bilakaeraren arrazoi subjektiboak. 4. eta 5. jasoaldiak.

Arrazoa	4. jasoaldia	5. jasoaldia
Daukadan denbora	% 81,7	% 76
Hainbat erantzukizun pertsonal (familia barneko zaintza, ikasketak, etab.)	% 55	% 60,1
Denbora librean ditudan beste interesak (lagunak, beste zenbait zaletasun, etab.)	% 72,3	% 59
Parte-hartzea partekatzeko lagunak	% 57,9	% 51,4
Eskaintza kulturalarekiko dudan interesa	% 58,9	% 45,9
Jarduera kulturalerekiko gogobetetasuna	% 50,5	% 43,7
Gomendioak (lagunak, prentsa, Internet, etab.)	% 48	% 43,2
Nire inguruan dagoen eskaintza kulturalaren aukera	% 50	% 42,6
Eskuragarri ditudan jarduera kulturaleri buruzko informazioa	% 46,5	% 38,8
Jardueren prezioa	% 44,6	% 38,3
Abonuak, deskontuak, kultur txartelak, etab.	% 22,8	% 19,1
Gauza bera Internetez egiteko aukera	% 21,8	% 14,2
Beste batzuk	% 3,5	% 2,7


Gehien aipatzen den arrazoa denbora da orain ere, baina 5 puntu jaitsi da (% 76 inguru). Puntu kopuru hori igo da, hain zuzen, «hainbat erantzukizun pertsonal» aipatzen zituen arrazoa (% 60,1).

Bestalde, parte-hartze kulturalari denbora kentzen dion hirugarren arrazoa («denbora librean ditudan beste interesak») ia 13 puntu jaitsi da, eta % 59,1 egiten du.

Alderdi ekonomikoak (adibidez, prezioa, deskontuak, gauza bera Internetez egiteko aukera) zerrendaren amaieran agertzen dira, eta, gainera, garrantzia galtzen dute aurreko jasoaldiarekin alderatuta. Eraitza horiek ikusita, beraz, argi dago denbora askoz ere faktore garrantzitsuagoa dela dirua baino; hala da, behintzat, noizean behingo publikoaren kasuan.

Arrazoi nagusiei begiratuz gero, are gehiago indartzen da arrazoi bat baino gehiago emateko aukerak deskribatutako egoera (9. grafikoa).

9. grafikoa. Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak beren aldaketa-ibilbide subjektiboaren arabera (%)



Orobat, parte-hartzea handitzeko arrazoi nagusienetako bat denbora izatea da, baina interesgarria da ikustea zer-nolako eragin positiboa duen jardueretan parte hartzeko lagunak izateak.

Parte-hartzea indartzeari dagokionez eta ikuspuntu subjektibotik begiratuta, norbanakoek duten kulturarekiko interes pertsonala ere garrantzitsua da, bai eta jarduera kulturekiko gogobetetasuna eta haiei buruzko informazioa ere.

Ostera, parte-hartzea jaitsi duten pertsonen autobalorazioaren arabera, bi faktore dira jaitsieraren arrazoi nagusi: denbora izatea (% 54,8) eta erantzukizun pertsonalak (% 19,4).

Ondorioa

Aldaketaren pertzepzio subjektiboa eta objektiboki neurtutako aldaketa alderatuta, lehenik eta behin, **arazo metodologiko** edo tekniko bat agertu da. Bi balorazioak bat etortzea ala ez aldaketaren operatibazioaren mende dago neurri handi batean.

Izan ere, 5 kategoriako sistema berriari esker, mantentze-kasuetan bat-etortzea oso handia izan da. Norbanakoak nahiko onak edo kapazak dira ibilbide hori epaitzeko. Alde batera utzita aldaketaren maila zein den (ertaina edo handia), bat-etortze horrek erakusten du litekeena dela egokia izatea **mantentzea modu baztertzailleagoan definitzea**³, betiere balorazio subjektiboarekiko bat-etortzea aintzat hartuta begiratzen badugu.

Bigarrenik, esan beharra dago orain arte aipatu diren kontuek parte-hartze hartzaileari buruz gogoeta egiteko ere balio dutela. Emaizak aztertuta ikusten da inkestatuei beren parte-hartzearen bilakaerari buruz eskatzen zaien balorazio orokorra bat datorrela modu hartzailearen bilakaera objektiboarekin, baina ez modu digitalaren eta sortzailearen bilakaerarekin. Alegia, pertsonen **imajinario kolektiboan** zera dago: kulturaren parte hartzea jarduera hartzaileetan parte hartzea da, espezifikoki. Konparazioak argi uzten du parte-hartzearen bilakaerari buruzko galdera erantzuten dutenean modu horretan pentsatzen dutela, eta, ondorioz, alde batera uzten dituztela parte-hartze sortzailea eta digitala.

Azkenik, inkestatuek beren ibilbideak azaltzeko aipatzen dituzten arrazoi subjektiboaren artean, badira bi alderdi, muturretan oinarrituak⁴:

- ◆ **Denbora** da faktore garrantzitsuena, zuzenean nahiz zeharka hartuta.
- ◆ Aitzitik, **dirua** da garrantzi gutxien duen faktorea, zuzenean nahiz zeharka hartuta.

Gainera, aurreko jasoaldietan bezala, oraingoan ere egiaztatu da lagunarteak (eragin soziala) positiboki eragiten duela, bai eta jardueretik gogobetetasunak eta gertuko eskaintzari buruz eskura dagoen informazioak ere. Beraz, argi geratzen da zein eremutan lan egin behar den: publizitatean eta komunikazioan, ekipamendu eta zerbitzu kulturaletan, eta programazioan.

³ Estatistikari dagokionez, jasoaldi honetan «mantentze» kategoriaren barruan sartu dira Oren inguruan dauden kasuak –hori kalkulatzeko, jasoaldien arteko aldaketaren desbideratze tipikoaren urkila zati bi egin da–. Zatiketa hori erabili da formula bat aurkitu nahi zelako, mantentzea modu baztertzailleagoan eta aldaketa modu malguagoan tratatzeko; formula hori erabiliz, aldaketa txikiagoak hobeto behatu ahal izan dira («ertain» gisa etiketatuta).

⁴ Aintzat hartu behar da, beti, zer pertsona-motak osatzen duen lagina (gutxienez, noizean behingo publiko kulturala da).

3.3 Parte-hartze kulturalaren mailak izandako bilakaeraren baldintzatzaileak

Xedea

Luzetarako hipotesi hauek egiaztatzea parte-hartze modu ezberdinetan:

- ◆ Denbora libre gehiago izaten denean, parte-hartze maila handitu egiten da.
- ◆ Ikasketa-maila handitzen denean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- ◆ Bizilekua hiri handietara aldatzen denean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- ◆ Guraso izatean, parte-hartze maila txikiagotu egiten da.
- ◆ Soldata bat (lana) edukitzen denean, maila areagotu egiten da.
- ◆ Soldatak altuak direnean eta erraztasun ekonomikoak daudenean, parte-hartze mailak areagotu egiten dira.
- ◆ Jarduera kulturala gehiago balioestea eragiten duten jarrera-aldaketak gertatzen direnean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- ◆ Jarduera kulturalak egitearekin bateraezinak diren zaletasunak daudenean, parte-hartze kulturalaren mailek behera egiten dute; aitzitik, bateragarri diren zaletasunak izanez gero, maila igo egiten da.
- ◆ Abonuak eskuratzeak areagotu egiten du parte-hartze kulturala.

Zer neurtzen da?

Lehenik eta behin, **parte-hartze mailen aldaketa** neurtzen da (hartzailea, sortzailea eta digitala).

Bigarrenik, **azalpen-aldagaietan izandako aldaketa** neurtzen da (honelako egoera-aldaketak kontuan hartuta: seme-alabekin bizitzea, ikasketa-maila handiagoa izatea, kultura gehiago balioestea, soldata bat izatea, eta abar).

Aldaketaren bat izan duten kasuak bakarrik analizatu dira; mantentze-kasuak ez⁵.

Nola neurtzen da?

Ikergaiari dagokionez, lehenengo modu berean egiten da:

1. Parte-hartze modu bakoitzerako eskala bat eratzen da, 0-1 bitartean aldatzen dena: 0 parte-hartze nuluren maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenba-

⁵ Ikasketa-mailari eta seme-alabak izateari dagozkion aldagaiak salbuespen dira; izan ere, horietan batera kontabilizatzen dira mantentze- eta jaitziera-kasuak (ezinezkoak edo probabilitate oso txikikoak direlako).

kien artean kokatzen dira, indizeak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera (2. eranskinean zehaztua). Hori 4. jasoaldiko eta 5. jasoaldiko datuetarako egiten da.

2. Bigarrenik, 5. jasoaldian norbanako bakoitzak indize bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) eskuratutako puntuazioari 4. jasoaldian horietan eskuratutako puntuazioa kentzen zaio. Modu horretan, jasoaldien arteko aldea lortzen da.
3. Estatistikaren ikuspuntutik, une honetan aldagai jarraitu kuantitatibo bat jasotzen da. Aldagai hori 2 kategoriatan birkodetzen da, eta, beraz, aldagai dikotomiko bat sortzen: igoerak eta jaitsierak. Alderik ez duten kasuak (bi jasoaldiak alderatuta, emaitza 0 den kasuak) ez dira sartu analisisian: aldaketetan eta haien ondorioetan jarri da arreta.

Azalpen-aldagaietara dagokienez, antzeko metodo bat jarraitzen da:

1. Kalkulua egin aurretik aldagai guztietako kategoriak modu ordinalean kodetuta daudela egiaztatzen da, eta, beharrezkoa izan bada, birkodetu egin dira, ezberdintasuna kalkulatzeko emaitzak jasoaldien arteko igoera edo jaitsiera modura irakurri ahal izateko.
2. Horrela, jasoaldien arteko emaitzetan dauden ezberdintasunak kalkulatu dira, aurreko kasuan bezala. Jasoaldien artean aldaketarik egon ez bada, emaitza 0 da (adibidez, jasoaldi batetik bestera seme-alaba kopurua aldatu ez bada). Zeinu negatiboko emaitzek jaitsierak adierazten dituzte (esaterako, diru-sarrera txikiagoak izatea), eta zeinu positiboko aldaketek, berriz, igoerak (hiri handiago batera bizitzera joatea, adibidez).
3. Emaitza horiek birkodetu egin dira, igoera- eta jaitsiera-kasuak soilik gordetzeko eta mantentze-kasuak alde batera uzteko⁶.

Azalpen-aldagaien eragina analizatzeko, zer korrelazio-maila dagoen kalkulatu da⁷. Maila hori -1 eta +1 artean egongo da:

- ◆ Emaitza 0 bada, esan nahi du ez dagoela erlaziorik: azalpen faktore baten aldaketak ez dakar berekin parte-hartze maila aldatzea. Emaitza 1 bada, korrelazioa perfektua da. Hortik gero eta gertuago egon, orduan eta handiagoa izango da erlazioa.
- ◆ Zeinuak (negatiboa edo positiboa) korrelazioaren zentzua adierazten du: negatiboa bada, faktorea handitzeak berekin ekarriko du parte-hartzea jaitea; positiboa bada, aldez, faktorea handitzeak parte-hartzea igotzea eragingo du.

Korrelazio-koefizienteak bakarrik hartzen dira kontuan; izan ere, ez du zentzurik gurea bezalako lagin txiki batean⁸ estatistika-adierazgarritasunaren irizpidea aplikatzea.

⁶ Dena den, beste oin-ohar batean esan den bezala, ikasketa-maila handitzeari eta seme-alabak izateari dagozkion aldagaiak salbuespen dira.

⁷ Aldagai dikotomikoak izanik (0 eta 1, jaitsierak eta igoerak), korrelazio tetrakorikoen matrizea kalkulatu da, horixe baita mota horretako aldagaiak tratatzeko modu egokia.

⁸ Igoera edo jaitsiera izan duten kasuekin egiten da lan espezifikoki, eta mantentze-kasuak, zeinek laginaren zati handiena egiten baitute, baztertu egiten dira.

Emaitzak eta eztabaida

Parte-hartze moduen arabera (hartzailea, sortzailea eta digitala) aurkezten dira emaitzak.

Guztira, 11 aldagairen⁹ aldaketen ondorioak aztertu dira, eta honela sailkatu:

Hezkuntza eta ekonomiaren dimentsioa	Bizi-testuinguruaren dimentsioa	Denbora librea izatea	Kulturaren posizioa
- Ikasketa-maila	- Seme-alabak izatea	- Denbora librea (aste barruan)	- Kulturaren garrantzia
- Diru-sarreraren maila	- Mendekotasun ekonomikoa	- Denbora librea (asteburuan)	- Motibazio kulturala
- Zailtasun ekonomiko subjektiboa			- Zailtasun bateraezinak
			- Zailtasun bateragarriak

Oharra: aldagaiei buruzko xehetasun metodologikoak 2. eranskinean irakur daitezke.

Aldagai horiei dagokienez, zera azpimarratu behar da:


- ◆ Ikasketa-maila eta alderdi ekonomikoa batera hartu dira, biek ala biek eragin positiboa dutelako soldata-baldintza onak dituzten lanpostuak lortzeko garaian.
- ◆ Bizi-testuinguruaren dimentsioan jarri da dependentzia ekonomikoa, zeinak zerikusia baitauka soldata bat izatearekin: ekonomikoki mendekoak diren pertsonak eta lanean ari diren eta soldata bat kobratzen duten pertsonak bereizi dira. Lehenengo kasuan, mendekotasun hori prestazio publikoekiko (langabeen kasua) edo senideekiko (ikasleen kasua) izan daiteke.
- ◆ Denbora librea izatearen dimentsioan, gai horri buruzko galdera zuzenak daude (nahiz eta lanak edo seme-alabek zerikusi handia duten): zer pertzepzio duten inkestatuek aste barruan eta asteburuan duten denbora libreari buruz.
- ◆ Azkenik, «kulturaren posizioa» atalean bildu diren alderdiek laguntzen dute jakiten kulturak zer posizio duen pertsonaren lehentasunen artean. Aldagai ideologikoak (kulturari ematen zaion garrantzia eta motibazio kulturalak) eta praktikoak daude (beste zailtasun batzuk izatea, zeinak teorikoki bateragarriak edo bateraezinak izan baitaitezke, edo kultur abonua edukitzea).

Parte-hartze hartzailea

Grafikoan ikus daitezke faktoreak eta parte-hartze hartzailearekin duten erlazioaren zeinua eta intentsitatea. Hiru aldagaik ez dute loturarik (± 0.1 baino korrelazio txikiagoa), bostek lotura positiboa dute maila ezberdinetan, eta hiruk lotura negatiboa.

⁹ Analisi-kasu nahikorik ez izateagatik gerta daitezkeen interpretazio-erroreak saihesteko (zenbait ondorio alboratzea edo neurritz kanpo aintzat hartzea eragingo luke horrek), «hiriaren tamaina», «kultur abonua» eta «lanaldia» aldagaiak ez dira jasoaldi honen azterketan sartu. Hiruretan, igoera- edo jaitsiera-kasuak 15 baino gutxiago izan dira.

10. grafikoa. Azalpen-faktoreak parte-hartze hartzaillearekin lotzea



Aldaketa handiena «kulturaren posizioa» dimentsioaren aldagaietan ikusten da: jardueren lehentasun-eskalan kulturak duen garrantzia handitu da, eta motibazio kulturala eta sinbolikoa ere bai (ikastea eta pertsona gisa errealizatzea), aldagai sozial eta emozionalen gainetik (lagunekin eta senideekin elkartzea eta egunerokotasunetik ateratzea).

Interesgarria da nabarmentzea garrantziaren eta motibazioaren aldagaiak subjektiboak direla; hau da, sinesmenekin eta balioekin daude lotuta.

Hurrengo aldagaiek, berriz, arrazoi objektiboekin zerikusia dute: denbora librearen gehikuntzak zeinu positiboa du, eta diru-sarrerak, zailtasun ekonomikoek eta seme-alabak izateak zeinu negatiboa.

Diru-sarreraren gehikuntzak eta zailtasun ekonomikoen gehikuntzak eragin negatiboa dute parte-hartze hartzaillearen. Zailtasun ekonomiko gehiago izatearen ondorioz parte-hartze kulturala jaistea espero zitekeen zerbait da. Baina kontraesana dirudi diru-sarrerak handitzean parte-hartzea jaistea. Hori ulertzeko, denboraren faktorea aztertu behar da. Lan produktiboak eta etxeari eta familiari eskaintzen zaion lanak (lan erreproduktiboak) lehentasuna izan ohi dute kulturari eskaintzen zaion denboraren aurretik. Baliteke diru-sarrerak handitzeko lanean denbora gehiago pasa behar izatea, eta, beraz, kulturarako denbora gutxiago izatea (parte-hartze kultural txikiagoa).


Ez dugu ahaztu behar azterlan honetako lagina osatzen duten pertsonak, printzipioz, kulturaren parte hartzeko joera dutela; bestera esanda, inkestaturen artean ez dago publiko ez den profirik. Hori dela eta, askorentzat arazoa ez da prezioa, kulturarekiko lehentasun agerikoa baitute. Horregatik, biztanleria osoa hartzen duten azterlanetan ez bezala, gure kasuan zailagoa da diru-sarrerak esperotako efektua izatea.

Zaletasun bateraezinen efektua ere horrela uler daiteke. Izan ere, aurreko jasoaldietan ikusi zen parte-hartze kulturalaren kontra jokatzeko zutela, baina oraingoan alde jokatzeko dutela ikusi da. Emaitza hori ez dator bat teoriarik espero zitekeenarekin.

Parte-hartze sortzailea

Orokorrean begiratzuz gero, parte-hartze sortzailean eragin positiboa duten 4 faktore daude, eta beste 4 eragin negatiboa dutenak. Alderdi ekonomikoak, oro har, erlazio eskasa du parte-hartze sortzailearekin.

11. grafikoa. Azalpen-faktoreak parte-hartze sortzailearekin lotzea



Grafikoaren bi muturretan daude zeinu bakoitzeko aldagaririk indartsuenak, lehen subjektibotzat definitu ditugunak; hau da, jarduera kulturalarekiko sinesmenei eta balioei buruzkoak.


- ◆ Kulturari ematen zaion garrantziak eragin positiboa du berriro ere (lehen pertsonalen artean zenbat eta garrantzi handiagoa eman kulturari, orduan eta parte-hartze sortzaile handiagoa).
- ◆ Motibazio kultural handia izateak, ordea, eragin negatiboa du (motibazio kulturala honela ulertuta: ikasteko eta pertsona gisa errealizatzeko interesa). Hori ulertzeko, kontuan hartu behar da motibazio kulturala jaisteak esan nahi duela, nolabait, motibazio sozialak eta emozionalak handitzen direla (esperientzia beste norbaitekin partekatzea eta egunerokotasunetik ateratzea). Horrenbestez, emaitzek erakusten dute parte-hartze sortzailea motibazio sozialarekin eta kulturalarekin lotuta dagoela, eta parte-hartze kulturalaren profil espezifiko bat dagoela: profil aktiboa edo sortzailea.

Denboraren faktorea oso lotuta dago parte-hartze sortzailearekin (gero eta denbora libre gehiago, orduan eta parte-hartze handiagoa). Hain zuzen ere, parte-hartze hartzailearen eta sortzailearen arteko aldeak ongi ulertzeko funtsezko faktorea da denbora. Parte-hartze sortzaileak, berez, denbora dezente eskatzen du (praktikatzeko, entseatzeko eta sortzeko orduak).

Parte-hartze digitala

Parte-hartze digitalean faktore positiboak aurkitu dira, batez ere: 7 faktore daude parte-hartze digitala sustatzen dutenak, eta soilik 3 sustagarria kentzen dutenak. Gainera, faktore negatibo horiek oso korrelazio txikia dute parte-hartze digitalarekin.

12. grafikoa. Azalpen-faktoreak parte-hartze digitalarekin lotzea



Orain arte aztertu ditugun parte-hartze moduetan funtsezkoa zen lehentasun pertsonalen artean kulturari ematen zizaien garrantzia, baina kasu honetan horrek ez du apenas eraginik. Motibazioak eragin negatibo apur bat du, parte-hartze sortzailean gertatzen zen bezala. Honela interpretatu behar da hori: kontsumo digitalerako motibazioak sozialak eta emozionalak dira batez ere (esperientzia partekatzea eta egunerokotasunetik ateratzea); motibazio kulturalak eta sinbolikoak (ikastea eta pertsona gisa errealizatzea) ez dira hain nabarmenak.

Seme-alabak edukitzeak, ekonomikoki mendekoa izateak edo zaletasun bateraezin gehiago izateak eragin positiboa du parte-hartze digitalean. Horrek esan nahi du kontsumo kulturalaren kontra jokatzeko duten egoera askotan ingurune digitaleko parte-hartzea handitu egiten dela.


Denboraren faktoreak, hala ere, baditu ondorio positiboak: gero eta denbora gehiago, orduan eta parte-hartze digital handiagoa. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan esandakoaren ildotik, denbora gutxi duten pertsonen artean ere parte-hartze digitala handitu egin da.

Diru-sarrerak eta ikasketa-mailak ez dute ia-ia erlaziorik (0,1etik gora, ozta-ozta).

Ondorioa

Beheko grafikoan ikus daiteke faktore bakoitzak zer pisu duen guztira¹⁰, parte-hartze moduei dagokienez, kontuan hartu gabe erlazioaren zeinua. Beraz, sailkapen orokor bat da, aldaketa azaltzeko garaian faktore bakoitzak duen garrantzia jasotzen duena.

13. grafikoa. Faktoreen sailkapena, parte-hartze modu bakoitzaren intentsitatearen batura kontuan hartuta (zeinua alde batera utzita)



Sailkapenaren lehenengo lekuetan motibazio kulturala eta kulturari ematen zaion garrantzia daude, hurrenkera horretan. Biak ala biak sinesmenekin eta balio subjektiboekin lotuta daude, zeinen arabera kulturari egiteko bat edo beste ematen baitzaio.

Sailkapenaren beste aldean, aldagai ekonomikoak nabarmentzen dira: oro har, ez dute garrantziarik inkestaturen aldaketa azaltzeko –inkestatuek noizean behingo publiko kulturalaren profila dute, gutxienez–.

Errealitate biak uztartuta, ideia bat egin dezakegu zenbat faktore ezberdinek azal dezaketen jokaera kulturala eta nola eragin dezaketen pertsona-profil ezberdinengan.

Biztanleria osoarekin egiten diren azterketetan espero izatekoa da maila ekonomikoa erabakigarria izatea, baina kultur arloan parte hartzeko ohitura duten pertsonen kasuan diru-sarrerak ez dute balio aldeak azaltzeko; lehentasunek, aldiz, bai («motibazio kulturala» eta «kulturari ematen zaion garrantzia» aldagaiak irudikatzen dituzten sinesmenak eta balioak).


Lehenengo seme-alaba izatea edo beste haur bat izatea funtsezko faktorea da. Bizi-testuinguruko faktore giltzarria da, eta hala ikusten da jasoaldi guztietan. Batez ere denboraren faktoreari eragi-

¹⁰ Batuketa egiten da, eta ez batezbestekoa, gerta daitekeelako faktore batek zeharkako pisu erregularra izatea hainbat modutan, baina beste faktore batzuek garrantzia izatea modu bakar batean. Horrela eginda, hobeto ikusten dira aldeak.

ten dio, baina diru-sarrereri eta lehentasunei ere bai. Beraz, aldaketa garrantzitsua da, beste faktore batzuekin teoriarik izan dezakeen erlazioa aintzat hartuta.

Amaitzeko, interesgarria da alderatzea aldagai bakoitzak zer eragin duen parte-hartze modu bakoitzean (14. grafikoa).

14. grafikoa. Faktoreak parte-hartze modu ezberdinekin lotzea



Parte-hartze moduen arabera aldaketa-kasu azpimarragarrienak hauek dira: seme-alabak edukitzea eta motibazio kulturala aldatzea. Hala ere, badira beste kasu deigarri batzuk.

Seme-alabak edukitzeari gagozkiorik, parte-hartze digitalak balantza orekatzen du: parte-hartze modu «analogikoak» gutxiti egiten dira, baina digitalekin konpentsatzen dira. Aukera digitalei esker, beraz, pertsona horiek beren parte-hartze mailari eusten diote.

Ikusirik motibazio kulturalaren aldagaiak eta haren aldaketek zer erlazio duten parte-hartze moduekin, argi dago bereizi egin behar direla: motibazio batzuetatik beste batzuetara aldatzea giltzarri da parte-hartze kulturalari begira. Batez ere parte-hartze sortzaileak, baina digitalak ere bai, erlazio handia du esperientzia partekatze eta egunerokotasunetik ateratzeko beharrian sozial eta emozionalekin. Halaber, parte-hartze hartzailearen eta sortzailearen kasuan kulturari ematen zaion garrantziaren eraginaren aldea ikusita, parte-hartze digitala gutxiago balioesten da.

Ikasketa-mailak, berriz, parte-hartze hartzailearekin du zerikusirik gehien. Goi-mailako aldagaia da, eta azterlan askotan parte-hartze kulturalarekin lotu izan da. Nolanahi ere, datuok erakusten digute aztertu beharra dagoela aldagai horrek nola eragiten dien parte-hartze kulturalaren modu batzuei eta besteei. Ideia hori buruan izanik, gai izan behar dugu, oinarri batzuei eutsita, esateko agian ikasketa-maila ez dela faktore nagusia (edo ez dela hain nagusia) parte-hartze kulturalaren beste modu batzuk azaltzeko, eta, hortaz, gai izan behar dugu hobeto definitzeko zergatik daukan eragin hori.

Mendetasun ekonomikoa izateak garrantzia du bereziki parte-hartze digitala handitzeari begira, baina badirudi beste moduetan ere eragina duela. Parte-hartze digitalarekin zer erlazio duen ikusita, zenbait oztopo gainditzeko aukerak ere ematen ditu –seme-alabak izateak zituen bezalaxe–.

Azkenik, denbora librea izatearen pertzepzioari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu baduela nolabaiteko inpaktua, izan asteburuan, izan aste barruan. Hala ere, azken horren handitzeak bakarrik dauka eragin positiboa parte-hartze hartzailean (asteburuan denbora libre gehiago izatea neutrala da parte-hartze hartzaileari dagokionez).

Txosten honetan, parte-hartze kulturalaren aldaketa-ibilbideei buruzko 5. jasoaldiko datuak azaldu dira, eta aurreko jasoaldikoekin alderatu. Bi begirada uztartu dira: batetik, begirada subjektiboa, inkestatzaileek emandako arrazoiekin lotua dagoena; bestetik, objektiboa, hipotesi multzo bat hartuta aztertu baitira faktoreak.

Txostenari esker, gehiago jakin dugu parte-hartze kulturalaren aldaketan eragiten duten faktoreei buruz, eta gogoeta berriak egin ahal izan ditugu, bai eta aurreko jasoaldietako ondorioak berreskuratu ere. Gogoan izan behar da, betiere, paneleko lagina osatzen duten pertsona gehientsuenak noizean behingo publiko direla gutxienez. Horiek horrela:

- ◆ **Parte-hartze moduen arteko bereizkuntza:** paneleko emaitzek erakusten dutenez, imaginario kolektiboak jarduera hartzailleekin identifikatzen du jarduera kulturala, baina kultura-arloko politika ulertzeko eta jorrazteko funtsezkoa da parte-hartze moduak bereiztea. Parte-hartze hartzailea, sortzailea eta digitala ezberdinak dira, eta ez dute berdin erantzuten faktoreen aurrean.
- ◆ **Aldaketa-faktoreak:** halako errealitatearen kasu eredugarri bat motibazio kulturalaren aldagaiak izan duen jokabidea da; izan ere, motibazio batzuk (sozialak eta emozionalak) beste batzuekin ordezteak (kulturalak eta sinbolikoak) parte-hartze kulturalaren ibilbidea markatzen du. Jarduera hartzaileetan, motibazio kulturalak eta sinbolikoak gailentzen dira; motibazio sozialek eta emozionalek, berriz, jarduera sortzaileetako eta digitaletako parte-hartzea bultzatzen dute.

Zeharka egiaztatu da lagina osatzen duten pertsonentzat aldagai hau dela garrantzitsuenetako bat: lehentasun-eskalan kulturari ematen zaion garrantzia (hasiera batean, laginak batez besteko interes-maila handia du, 10etik 7,3). Bestalde, aldagai ekonomikoek, oro har, garrantzi gutxi dute. Hala ere, mendekotasun ekonomikoa gero eta handiagoa izan, orduan eta jarduera digital gehiagotan parte hartzen dela ikusi da (gainerako moduei dagokienez, aldagai hutsala da).

lido beretik doa seme-alabak izatea: parte-hartze digitalaren aldekoa da, baina beste guztien kontrako. Bizi-testuinguruko faktore giltzarria da, eta hala ikusten da jasoaldi guztietan. Batez ere denboraren faktoreari eragiten dio, baina diru-sarrerei eta lehentasunei ere bai.

Praktika kulturalak hobeto ulertzeko, komeni da parte-hartze moduak bereiztea. Horren harira, txosten honetako datuek aukera ematen dute gutxienez galdera hau planteatzeko –erantzuna izateko, datu gehiago behar dira–: nahiz eta kontsumo kulturalari buruzko literaturan ikasketak-maila aldagai giltzarri gisa agertu ohi den, posible al da parte-hartze hartzailearen kasuan aldagai hori garrantzitsua izatea, baina ez funtsezkoa?

Azken buruan, espezifikoki inkestatuek emandako balorazio subjektiboaren arabera:

Batetik, denbora da faktorerik garrantzitsuena (zuzenean edo zeharka erlazionatutako arrazoiengatik). Horregatik, arrazoizkoa da denborarekiko korrelazioen analisiaren emaitzak irakurtzea, hainbat aldagairen efektua interpretatzeko elementu gisa.

Bestetik, berretsi egiten da ez diola berdin eragiten parte-hartzearen igoerari eta jaitsierari. Adibidez, lagunarteak (eragin soziala), jardueretik gogobetetasunak eta eskura dagoen informazioak eragin positiboa dute berariaz.

- ♦ **Mantentzeko joera:** modu batetik bestera aldeak badaude ere, gorabehera txikiak eta mantentzeko joera nagusitzen dira, oro har. Hori bat dator noizean behingo publikoa izatearekin eta, beraz, gutxieneko interesa izatearekin; horrek aldagaien inpaktu teorikoa leuntzen du nolabait. Faktore garrantzitsuen bat-bateko aldaketa ere nabarmentzen da, hala nola seme-alabak edukitzea edo lana galtzea/aurkitzea. Aldaketa disruptiborik ezean, gorabeherak dira joera.

Aipatu beharra dago mantentzeko joera bereziki nabarmena dela parte-hartze sortzailean (praktika artistiko amateurrek egitea). Izan ere, praktika artistiko amateurrek eskakizun-maila handia dakar berekin, eta horrek konpromisoa eskatzen die kategoriatan, bai praktikatzaleei, bai ez-praktikatzaleei. Hau da, praktikarik egiten ez duten pertsonen bolumena mantendu egiten da hein handi batean, baina praktikak egiten dituzten pertsonen bolumena aldatzen doa, egiten duten jarduera kopuruaren arabera. Horren harira, pentsatzekoa da sarri-oztopo bat dagoela eta hura igarotzea lortzen duten pertsonak praktika amateurretan ohikoak bihurtzen direla.

Azkenik, txosten honek arazo hauek birplanteatu ditu, galdera berriei heltzeko asmoz:

1. **Aldaketa-ibilbideen operatibizazioa** (3 kategoriatan oinarritutako analisia alde batera utzi, eta 5 kategoriatan oinarritutako zehatzago bat erabili da), jasoaldien arteko joerak hobeto analizatzeko eta haiek pertzepzio subjektiboarekin alderatzeko.

Horrek espezifikoki erakutsi du ezen, «parte-hartze kultural mailaren mantentzea» estatistikoki hobeto definituz gero, datu hori hobeto egokitzen dela inkestatuek beren parte-hartze kultural maila mantentzeko buruz duten pertzepzio subjektiboarekin. Horrek, ordea, aldaketaren definizio malguagoa eskatzen du, eta, bide batez, aldaketa ertainak eta handiak bereiztea.

2. **Aldaketaren analisi objektiboa, korrelazioen analisisian oinarritutako teknika berri bat aplikatuz.** Paneleko datu-motara egokitutako korrelazio-analisiari esker, errazagoa da aldaketaren eta kausalitatearen gainean begirada espezifikoa ipintzea eta bakar-bakarrik arreta jartzea azalpen-faktoreak aldatu diren kasuetan (igoera edo jaitsiera).

Horrela, errazago eta argiago aurkeztu eta bistaratu ahal izan dira datuak. Gainera, etorkizunari begira, beste hurbilketa bat egin daiteke, datu-base bat eraikiz, zeinak faktore bakoitzaren aldaketen historikoa eta haiek parte-hartze kulturean duten inpaktua bilduko baititu. Lagina handitu egingo da jasoaldi batetik bestera, eta horrek –lagin-tamaina handiagoak, alegia– zehaztasun estatistikoki gehigarria ekarriko du berekin.

1. ERANSKINA. Taula osagarriak

1. eranskineko taula. Abiapuntuko parte-hartze hartzaillearen batezbestekoa (4. jasoaldian), aldaketa-ibilbidearen arabera.

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,4071
Jaitsiera ertaina	0,2876
Mantentzea	0,2493
Igoera ertaina	0,2525
Igoera handia	0,1728
Guztira	0,2696

2. eranskineko taula. 4. eta 5. jasoaldietan egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa.

	4. jasoaldiko ehunekoak	5. jasoaldiko ehunekoak
Jarduerarik ez	58,3	54,4
1 jarduera	20,6	29,4
2 jarduera	11,8	8,8
3 jarduera	5,9	4,4
4 jarduera	2,0	2,5
5 jarduera edo gehiago	1,5	0,5

3. eranskineko taula. Abiapuntuko parte-hartze digitalaren batezbestekoa (4. jasoaldian), aldaketa-ibilbidearen arabera.

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,5131
Jaitsiera ertaina	0,4286
Mantentzea	0,2861
Igoera ertaina	0,2830
Igoera handia	0,2124
Guztira	0,3341

2. ERANSKINA. Aldagaien kodetzea

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Azalpena
Adina G2	Aldagai jarraitu bat da, jaiotze-urtearen arabera eraikia. Gogoan izan behar da laginak 18-39 urte bitarteko norbanakoak hartzen dituela barne.
Sexua G1	Aldagai bitarra da, non 0 zenbakiak gizona identifikatzen duen eta 1 zenbakiak emakumea.
Udalerraren tamaina G5	4 kategoria ezberdintzen ditu: <ol style="list-style-type: none"> 1. <5.000 2. 5.000-20.000 3. 2.000 4. Hiriburuak
Seme-alabekin bizitzea G6a	G6 aldagaia birkodetuta eraiki da: seme-alabekin bizi direnak (1. kategoria) eta seme-alabekin bizi ez direnak (0 kategoria). Bizikidetzeta-moduen aldagaiaren bidez heltzen zaio seme-alaben gaiari. * 3. jasoaldira arte baino ez da erabili
Seme-alabak izatea G6b	Seme-alaba kopuruaren inguruko galdera zuzena. * 3. jasoaldian gehitu zen
Amaitutako ikasketa-maila G7	Guztira 8 kategoria daude, amaitutako ikasketa-mailarik baxuenetik altuenera antolatuta.
Hizkuntza G10	Inkestatuak erosoan darabilen hizkuntzari egiten dio erreferentzia. Euskaratik (1) gaztelaniara (3) doa; «biak» (2) aukera ere badago. «Beste batzuk» aukera kendu egin da (kasu bakarra zegoen).
Soldata/lan bat izatea G12	G12 aldagaia 2 talde handitan birkodetuz eraiki da: ekonomikoki mendekoak (1 zenbakiarekin kodetuak: ikasleak, langabeak eta ezintasun iraunkorra dutenak) eta ekonomikoki independenteak (0 zenbakiarekin kodetuak: beren konturako edo besteren konturako langileak).
Diru-sarrerak G14a	Hileko diru-sarreraren 6 tarte daude, «diru-sarrerarik gabe» mailatik «2.000 baino gehiagoko diru-sarrerak» mailara arte.
Zailtasun ekonomiko subjektiboa G14b	1etik 10era, txikitik handira hilabete bukaerara iristeko zailtasunak neurtzen ditu.
Oinordean hartutako kapital kulturala	Honako aldagai hauen batuketarekin eraikitzen da, horien neurketa estandarizatuz, eta Otik 1 era mailakatuz: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Liburuak etxean hartzaroen ▪ Musika-tresnak hartzaroen ▪ CD-grabagailua, irratia, musika-ekipoa edo binilozko diskoak hartzaroen ▪ Idatziko prentsa etxean hartzaroen ▪ Museo edo galerietara, antzokira, ikuskizunetara, dantzara, kontzertuetara, liburutegietara edo zinemara joatea hartzaroen ▪ Hartzaroko jarduera kulturalak: irakurtzea, marraztea, istorioak idaztea, musika jotzea <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da. Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.</p>
Amaren eta aitaren ikasketa-maila G15a eta G15b	Ikasketa-maila aldagaia bezalaxe. Ez da modu sistematikoan barneratzen; izan ere, 1. jasoaldian ikusi zenez, haren eragina zeharkakoa zen batez ere, oinordean hartutako kapital kulturalaren bidez.

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Azalpena
Denbora libre G22 G23	1 etik (denbora libre gutxi) 4ra (asko), denbora libre neurtzen du aste barruan (G22) edo asteburuan (G23).
Jarduera kulturalen garrantzia G24	1-10 bitarteko eskala batean norbanakoarentzat jarduera kulturaletan parte hartzeak duen garrantzia neurtzen du.
Motibazio kultural nagusia G27	Kontsumo kulturalerako motibazio ezberdinak neurtzen dira: <ol style="list-style-type: none"> 1. Sentipen berriak bizitzea, egunerokotasunetik irtetea (emozionala) 2. Nire ezagutza hobetzea (kulturala) 3. Pertsona gisa errealizatzea. Nire interes eta premia pertsonalak asetzea (sinbolikoa) 4. Esperientzia partekatzea, nire inguruko jendearekin harremanetan egotea (soziala) <p>Dikotomizatu egiten da, batera birkodetuz, alde batetik, beharizan sozialak eta emozionalak (1) eta, bestetik, beharizan sinboliko eta kulturalak (2)</p>
Zaletasun eta okupazio alternatiboak G29	0-1 bitartean aldatzen den indize bat da (gutxiagotik gehiagora), beste zaletasun edo okupazio batzuei eskainitako denboraren arabera eraikia. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bateriaezinak: ▪ Kirola ▪ Bideo-jokoak ▪ Etxeko zereginak ▪ Bateragarriak: ▪ Gastronomía ▪ Turismoa ▪ Lagunak
Asoziazionismoa G54	Kultur elkarteren batean duen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzen da: <ol style="list-style-type: none"> 1. Bakar batean ere ez 2. Batean 3. Batean baino gehiagotan
Kultur abonua G44	Jarduera/ekipamendu baterako kultur abonuren bat izatearekin ala ez izatearekin lotutako informazioa jasotzen da: <ol style="list-style-type: none"> 0. Ez 1. Bai
Ibilbide subjektiboa	Inkesta bete duenak berak aurreko jasoaldiarekin alderatuz berarengan hautematen duen bilakaera-ibilbidea jasotzen da. <p>Parte-hartze maila orokorra begiratzen da.</p> <p>3 kategoria ditu: nire parte-hartze kulturala jaitsi, mantendu edo igo egin da.</p>
Arrazoi subjektiboak (hautaketa anizkuna + arrazoi nagusia)	Parte-hartze kulturalari dagokionez, jasoaldien artean izan den bilakaerarekin lotutako arrazoi zerranda bat da. Norberak hautemandako ibilbideari buruz galdetzen da. <p>Norbanakoek garrantzitsutzat jotzen dituzten arrazoi batzuk aukeratu ez ezik, arrazoi nagusi irizten diotena hobesten dute.</p>

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Azalpena
Parte-hartze sortzailea	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), burutzen diren jarduera kulturalen kopurua neurtzekoa. Guztiek dute garrantzi bera. Aldagai dikotomikoak dira.</p> <p>Honatz indizean sartzen diren aldagaiak/jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Idaztea ▪ Margotzea ▪ Arte plastikoak ▪ Argazkigintza *2. jasoaldian ez zen sartu; izan ere, aldagaiak ehuneko anomalo bat hartu zuen, interpretazioa alboratzen zuena. ▪ Bideoa ▪ Ikus-entzunezkoak ▪ Bertsolaritza ▪ Antzerkia ▪ Dantza ▪ Musika ▪ Beste batzuk
Parte-hartze hartzailea	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren intentsitatea neurtzekoa.</p> <p>Hauek dira aldagaiok:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakurritako liburu kopurua ▪ Ikusitako-entzundako kontzertu kopurua ▪ Zinemara joateko maiztasuna ▪ Ikuskizunetara joateko maiztasuna ▪ Erakusketetara joateko maiztasuna <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da.</p> <p>Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.</p>
Kontsumoaren aniztasuna / Omniborismo kulturala	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren aniztasuna neurtzekoa. Aldagai dikotomikoak dira (bai/ez).</p> <p>Hauek dira aldagaiok:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zinema ▪ Liburuak ▪ Kontzertuak ▪ Erakusketak ▪ Zirkua ▪ Haurrentzako antzerkia ▪ Antzerkia ▪ Dantza ▪ Musika ▪ Bertsolaritza ▪ Magia ▪ Literatura-jaialdia ▪ Opera

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Azalpena
Parte-hartze digitala	<p>Indize hau aldagai dikotomikoetatik abiatzen da (bai/ez), eta kontsumo digitala neurtzen du 0-1 bitartean (gutxitik handira). Aldagai hauek hartzen ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Internetez musika entzun edo deskargatzea ▪ Internetez liburuak irakurri edo deskargatzea ▪ Internetez telesailak, filmak edo bideoak ikustea ▪ Internetez ikuskizunak ikustea ▪ Internetez kontzertuak ikustea ▪ Internetez erakusketak ikustea ▪ Internetez liburutegian sartzea
Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, jarraitua)	<p>Parte-hartze hartzailerako, sortzailerako eta digitalerako kalkulatu da. Jasaldi bateko eskalen emaitzei aurreko jasaldiko emaitzak kentzetik lortutako emaitzari dagokio.</p>
Ibilbide objektiboa (jasoaldien arteko aldea, kategorien araberakoa)	<p>Jasoaldien arteko aldea (jarraitua) 3 kategoriatan birkodetzen da: igotzea, mantentzea eta jaistea.</p> <p>Mantentzetat jotzen da 0 +- desbideratze tipikoa.</p> <p>Igoeratzat edo jaitsieratzat jotzen da, urkila horretatik kanpo balio positiboak ala negatiboak, kasuaren arabera, sortzen direnean.</p>



www.euskadi.eus/kulturabehatokia